

Manoli Olaizola Alkorta

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1917-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Amak Mikela zuen izena, eta
Altzolakoa zen. Aitak Martin
(Martin "Txiliku"), eta
Urdanetakoa zen. Zarautzera
ezkondu ziren, eta bertan jaio
ziren Manoli eta bere anaia.
Txiliku baserrian hazi ziren.
"Txiliku" idazlearen izeba da.

Zintak

ZAR-018

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguen, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2005-01-26
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Umetako kontuak

- **Erref:** ZAR-018/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako kontuak. Non jolasten zuten.

2. Gurasoen inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-018/004
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak. Aita eta ama biak baserrikoak. Baserriaren inguruko kontuak kontatzen ditu: aita terrenoa erosi zuen eta ondoren etxea egin zuten. Zalbiden zenbait lagunen laguntzaz. Ama langile handia omen zen.

3. Eskola

- **Erref:** ZAR-018/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:07:36. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Umetan eskolara eta ondoren lanera joaten zen. Lehenengo miseri-kordian eta gero herriko eskolan ibili zen, komunioa egin arte. Lehenbizi komunio

txikia egiten zen eta geroago handia. Maistra oso ona omen zen. Zer ikasi zuten. Josten ere egiten zuten eskolan.</p>

4. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ZAR-018/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Noiz etorri ziren etxe berrira. Ze animalia zeuzkaten baserrian. Terrenoak, mahastiak... Txerriak hazi eta saldu egiten zituzten. Herriko merkatuan saltzen zituzten produktuak eta geroago Donostian ere bai.

5. Josten ikastera joaten zeneko kontuak

- **Erref:** ZAR-018/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:12:26. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Bere bizimodua dena nekazaritzatik. Gero josten ikastera joaten zen jostundegi batera. Bertako kontuak.

6. Umetako jolaslekuak eta bihurrikeriak

- **Erref:** ZAR-018/008
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Txikitako kontuak. Finka bateko zelaian jolasten zuten eta gaiztakeria asko egiten zituzten. Uraren depositua ireki eta errekan arropa garbitzen ari ziren emakumeei ur-uholdea bidali zieten. Mutikoekin ibiltzen zen eta bera ere, haiek bezala, arboletan puntarik punta. Lorazainari egiten zizkioten gaiztakeriak.

7. Umetako jolasak.

- **Erref:** ZAR-018/009
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolasak: txingoka, sokasaltoan.. Orduan ez zegoen jostailurik.

8. Santa Marinako elizaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-018/010
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Santamairak. Jaiak noiz ospatu ziren lehenengo aldiz. Meza izaten zen goizean. Gero eliza bota zuten eta ez zegoen lekurik eliza berria egiteko. Administradorea Don Jose Joakin Fort zen. Honen inguruko pasadizo bat kontatzen du.</p>

9. Euskara/erdara

- **Erref:** ZAR-018/011
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetatik egin du erdaraz. Miserikordian euskaraz ikasten zuten, ez zekitelako erdaraz. 9 urterekin herriko eskolara joan zen eta han erdaraz. Eskolan ez zuten kantatzen, elizan bai.

10. Santa Marina ingurua

- **Erref:** ZAR-018/012
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Iluntzetan, batzuetan, Santamairara joan eta jolasean ibiltzen ziren. Santamairan neska eta mutilak batera ibiltzen ziren. Zalbide bideari kanposantu bidea deitzen zioten. Bidea nahiko iluna zen, argi gutxi zeuden.

Transkripzioa

- Bueno, eta geo ya hamabi, hamabi urte arte ordun bizimou hori: Santa Maiñan jolasian, eskolan ta gero etxian laguntzen.

- Etxian launtzen. Illunduta etortzen bagiñan igual illuntzian ihes ingo gendun Santa maiñaiño.

- A, baita, e?

- Behin baiño gehiotan bai porke bestiak 'e gu bezela izaten zian, e? Gu bakarrik ez giñan hola. Zea, Orbegozotarrak, mutil bat due ni baiño zeoze zaharro, neska zan nere edadekua, este... Faustino. Ta hua fundiziyuan hasiko zun aitak lanan sei urteako. Hamalau-hamabost urteako fundiziyuan gizonakin lanian zabillen hua. Ta handik ertetzen zanen, tximilikuarteka ibiltzea o izango gendun, korrika.

- Tximilikuarteka 're bai? Neskak 'e bai?

- Danak, neska ta mutil ibiltzen giñan.

- A bai, e?

- Santa Maiñan bai. Santa Maiñatarrak beti alkarrekin ibiltzen giñan. Ta nahiz horrea jun gu 're, Santa Maiñatarrak bezela jotzen genun. Hau ez zan, hau kanposantu biria deitzen geniyon orduan. Oain Salbide biria o du izena, baiño.

- Ordun, lehen Salbide bidea baiño lehen, kanposantu bidea.

- Hala deitzen ziyen, ez zun izenik eta. Zan argi bat Belauntzaneko parian. Belauntza ba al dakizu zein dan? Zea, itxe hor, zea, linterneia daon hori, hor zan Belauntza. Ta geo hamen, hor, zea, honeao, beste itxe bat, txale Garate esaten deten, hor matrimoniyo bat neska alaba haundi batekin. Ta geo hurrengo etxia guria, ta hurrengo Salbire. Ta argiyak hamen. Bide txikiya nola dao? Pare hortan bat, baiño bonbilla txiki batzuk zien ta, bestiak, zeanian, Manuel Maiñeneko aurrian, ta hurrengo gure etxian parian. Asi ke, argi illun-illun-illuna biria 're. Argiya bazeon, baiño illuna zan.

- Bonbilla txikiya, gaiñea.

- Bonbilla txikiya. Gure zea haundiyena zan, hamen bire txikiyan hontan haundiyo. Ta akordatzen naiz batian nola esan zian nei Azken Portu aldian bestek, "zuek argi hobia dakazue Azken Portu aldian baiño", "ta, zea eukiko diyau argiya", zea, argi, zea zaben ta, ipurtargiyak eta ta. "Galanta ikusten den", ta "bai, bueltako hori". Hori pixkat haundiyo, baiño bestiak? Argi txikiya". Ta geo guria pasa ta zean zan bestia, Baxilioneko txabolan parian. Ta hurrengo Salbiden, geo jarri zuen errekan parian, errekan parian ez zan argiik. Zan honea erreka ta honea 're erriyua, lehen erreka izanda izango zan porke erdiyan harriyak zitun harek.

11. Jostera joaten zeneko kontuak

- **Erref:** ZAR-018/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Eskolatik atera eta gero josten hasi zen. Goiz eta arratsalde egoten zen bertan. Hamabi lagun juntatzen ziren. Jendearen arroparekin lan egiten zuten, baina ikasi bitartean eurak ordaintzen zituzten klaseak.

12. Santa Agedak

- **Erref:** ZAR-018/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:31:16. **Bukatu:** 00:32:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Ospakizunak. Santa Agedak. Patxi pelukeroak eta bere lehengusu batek egiten zuten bertsotan. Zalbidera joaten ziren bertsotan egitera eta bera entzutera joaten zen.

13. Zalbideko garbitokia

- **Erref:** ZAR-018/015
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Garbitokia bazen Zalbiden.. Jende asko elkartzen zen bertan. Batak besteari laguntzen zioten arropak amaitu ezinik zebiltzanean. Nola garbitzen zuten arropa. Gero etxeetako balkoietan edo han bertan sasietan jartzen zituzten lehortzen. Etxe batzuetan lixiba egiten zen.

Transkripzioa

- Ordun, auzoa asko aldatu da, e? Poliki-poliki, e?
- Hau dana, ezta arrastoik 'e ez daka honek!
- Hor bazan ba hor errekan garbitzeko tokiya edo... Nola deitzen zan hori?
- Salbideko erreka deitzen geniyon. Zea, aurrena zitun harriyak alde batetik eta erreka. Ta geo, jende asko jutun zan, in ziyoen beste aldetik 'e harriyak jarri. Hori in zan, ba, hori bete gendun ba urez. Ujalak hor jarri giñun bestia irikita, goiko depositua irikita. Horrea jende asko jute zan, porke hoteletakuak 'e jun iten zian ta.
- Ze urtetan in zan hori, gogoratzan al dezu? Ala inda zeon hori?
- Inda zeon erreka, gu jun giñaneako erreka bazan.
- A, bai?
- Zian alde batetik harriyak, eta geo, zubi azpiyan 'e bazian bi harri.
- Baiña garbitzeko tokiya 're inda zeon?
- Bai, inda zeon.
- Ta hor, jentea elkartuko zan hor, herrikuak eta...
- Hantxe, batzutan erritan ta bestetan zean.
- Ze giro eoten zan?
- Gehienian ondo moldatzen zian, e! Nik askotan ikusi ditut erropa garbitzen ibiltzen dianak, ibiltzen zianak, illuntzia etorri ta bukatu ezinik igual, ta bukatuta zakaenak, "bueno, illuna etorri den ta ez den iteik izango", ta laguntzen. Hortan izugarriya zan jendia, alkarrei launtzen, nahiz hurrengo egunen alkarrei erritan jardun, laundu 're bai.
- Ta zuek ere jutun ziñaten horrea garbitzea?
- Gu 're bai, han ikasi gendun erropa garbitzen, labadorak hasi zian arte.
- Nola garbitzen zan erropa? Esplikatu pixka bat, aber, nola garbitzen zan? Nola hasten zan?
- Diferentia zan: batzuek lixiba iten zuela esate zuen, gurian jaboia eman ta jabondu eskuakin, ta ondo jabondu ta geo erreka jun.

- Lehendabizi beheratu in beharko zan erropa, ez?

- Ez, bertan, beheratu gabe 're bai. Beste batzutan beheratu 're bai. Geo, lejiatan jarri, ta geo errekan aklaratu. Aklaratzeko erreka hori oso ona zan. Ur korritua zan ta beti ur garbiya ta asko.

- Ta jente asko pasatzen al zan egunian hor?

- Bi aldiak beteta 're eote zian ta. Ta eztakit zenbat harri izango zian alde bakotxetik, bastante.

- Ta, konbersasiyuak eta danetik eongo zan hor.

- Konbersasiyuak eta hasarriak eta danetik.

- Kantuan 'e bai?

- Kantuan behiñ 'e ez nitun ikusi.

- Ze edadeko jentia juten zan?

- Danekua: sasoikua 're bai, zaharra 're bai...

- Ta gero, hortik eamandako erropa nun lehortzen zan?

- Itxetan, balkoitan o. Batzuek han bertan gaikaldeko sasiyan 'e jartzen zituen, azkar behar zituenak. Eta geo, Eguzkikuak eta hoiak karruakin juten zian. Karruan barreinuak hartuta ta. Haiek ez dakit nun zeken sekatzeko lekua. Eguzkira etortzen zian erropa bustiyakin. Eguzkik 'e beti han garbitzen zun.

- Ta, lixiba ta etxean iten al zan?

- Leku batzutan bai.

- Nola iten zan hori?

- Hori katxarro batian ura sartu ta, eztakit nik hori nola iten zuen. Ikusi nun iten, baiño nola iten zuen ez dakit. Venturanean ikusi izandu nun lixiba.

- Ta ondo garbitzen zan erropa, oain baiño hobeto, edo?

- Danetik. Bazian ondo garbitzen zuenak, eta batzuek errezo pasatzen zuenak 'e bai.

14. Hiletak

- **Erref:** ZAR-018/016
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hiletak. Elizatik bizkarrean eramaten zuten gorputza hilerriraino. Gurutzea aurrean jarrita joaten ziren. Kanpai ezberdinak egoten ziren. Herriko hileta entzutetsua izan omen zen Martinez Campos-ena, baina berak ez zuen ezagutu. Konde baten semea ere Zarautzen lurperatu zuten eta hura hilerrira etortzen zenean haren atzetik joaten ziren.</p>

15. Santa Marinako ermita egin zutenekoa

- **Erref:** ZAR-018/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:42:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Santa Marinako ermita auzolanean egin zuten. Zalbideko bi nekazarik egin zituzten gurutzeak eta ontzia. Egunero-egunero joaten ziren lanera. Santa Marina egunean bakarrik egoten ziren elizkizunak. Apaizarekin haserre ibiltzen ziren.</p>

16. Gerra hasiera

- **Erref:** ZAR-018/018
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra hasi zenean 18 urte zituen. Nola gogoratzen duen gerra hasiera. Jendea etortzen zen ihesika. Ez zuten ezer jakiten, irratirik ere ez zutelako. Udaletxea erre zuten.

17. Gerraren inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-018/019
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerraren inguruko kontuak. Hildakoak ekartzen zituzten eta musikarekin egiten zieten entierroa. Sakeoak. Non zeuden ospitaleak. Ez zuten irratirik, eta egunkarian hitz asko tatxatuta egoten ziren jendeak berririk ez jakiteko.

18. Azokara joaten ziren saltzera.

- **Erref:** ZAR-018/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:49:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Normalean ama joaten zen azokara, baina berak ere joan behar izan zuen inoiz. Lehenengo egunean 6 pta. hartu zituen.

19. Janaria: ze barazki eta lekari izaten zituzten.

- **Erref:** ZAR-018/021
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:49:04. **Bukatu:** 00:51:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Zer jaten zuten baserrian. Urte guztian izaten zuten tomatea. Asko izaten zuten eta enboteilatu eta saldu ere egiten zuten. Barazki ugari izaten zuten: eskarola, ilarrak... Gosaltzeko taloa eta esnea. Artoa eta babarruna hartzen zituzten soroan. Ganaueri

Transkripzioa

- Ze jaten zan etxian garai hartan, baserriyan, zuen baserriyan, ze jaten zan? Ze, hor Urdaneta aldean ta eon gea ta egunero babarruna jaten omen zuten hor.

- Gurian 'e bai.

- A, zuek 'e bai?

- Aurrena zopa, berdura, itxian ona iten gendun berdura, ta babarruna, hoiek beti izango zian. Ta babarrunak izango zun o zeziña, o txerrikiya o zerbait, eta, hua haiekin. Ta beste batzutan haragi pixkat [...], baiña jeneralian jayian bakarrik salda, orduan fideo iten zan. Baiña gaiñuntzian baatzui zopa, zeozen zopa in, o berdura... ta egunero babarruna. Ta geo gaiñian o tomatia, urte guztiyan eukitzen gendun tomatia.

- Urte guztiyan?

- Bai, porke tomatia iten zan saltzeko, ta geo [...] ta [...] plaza eaman, ta bestia enbotellatu ta itxian. "Y luego aquello aguantaba todo el año".

- Ordun, baatzan ze jenero hartzen zenuten, epokaz? Esate bateako, udaberriyan...

- Letxuak, eskarolak, azelgak, danetik, bainak, illarra, patata, patata asko iten gendun. Patata 're urte guztirako izaten gendun. Asi ke gosia ez gendun pasa. Nik, esango bagenduke gosia pasa gendula, gezurra! Jan nahi genduna ez, e!

- Babarruna 're bai, ordun?

- Bai, ta nei ez zitzaten gustatzen. Ez zait gustatzen. Baiño izango zan zerbait, berdura o... jateko. Jateko ez, jarriko zien. Taluak eta esnia afaitan ta gosaitan igual.

- Ta ordun barazkiya ugari?

- Baazkiya ugari.

- Etxean jan ta saldu baita.

- Saldu bai. Etxian nola iten zan barazkiya beti izate gendun, sasoyan sasoieko gauza.

- Ta gero udan ze iten zan, udan ze barazki?

- Udan? Ba, oaintxe bezela, igual.

- Ta, eskarola 're bai, ordun, garai hartan, eskarola 're bai, e?

- Eskarolak 'e bazian.

- Lorea ta erabiltzen al zenuten?

- Ez, behiñ 'e ez gendun loreik in. Geo karduk 'e baita. Hori gero.

- Eta ganauentzat? [...].

- [...] eta belarra. Eta geo, artua ta babarruna iten zian, soruan, eta artua, eta geo han arbiya iten gendun eta erremolatxa sartzen gendun tartian, ta hua 're ganauantzat.

- Ta artua?

- Artua, iriña iten genduna taluak iteko, ta gaiñontzekua ganauantzat.

20. Errotak eta ogi egitea

- **Erref:** ZAR-018/022
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:51:54. **Bukatu:** 00:57:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Errotak non zeuden. Berak joan beharra izaten zuen astoarekin. Kiloko hainbeste kentzen zuten errotan. Gero garia egiten hasi ziren. Amak ogia egiten zuen etxean. Geroago ogia panaderian egiteko eskubidea ere atera zuten. Santio errekan errota asko zeuden</p>

21. Azokara saltzera joateko prestaketak.

- **Erref:** ZAR-018/023
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:57:01. **Bukatu:** 00:59:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Noiz hasi zen azokara bakarrik joaten. Egunero-egunero joaten zen. Bi aska handi zituzten barazkiak garbitzeko. Hasieran buruan eramaten zuen tratua eta gerora remolkean. Orduan merke saltzen zen jeneroa.

Transkripzioa

- Ta noiz hasi ziñan ya zeure kontura ya azoka juten, zeu bakarrikan?
- E?
- Noiz hasi ziñan, ze edadekin hasi ziñan azoka juten bakarrikan?
- Ez dakit, baiño, jota, urte batzuekin hasiko nitzan... Nik handik aurea egunero, egunero, egunero, egunero, "todos los días que había", puestua hartuta gakaun.
- Konta, nola iten zan, aurretik prepaatu beharko zenuten jenerua ta. Kontatu pixkat hori nola izaten zan.
- Arratsaldian jun, eta aurrea lanian jardun baatzan, ta geo tratua ekarri. Geo, itxea etorri ta hua dana garbitu ta pronto jarri. Lekua jarrita gazkaun aska handi batzuek, oaiñ 'e han daure. Bi aska ta geo balda batzuek kaja jartzeko. Ta garbitu. Bi askatan iturriyak daue. Eta garbitu, jarri pronto. Hurrengo goizian jaiki euna argitu baiño lehen, ta mahastira atxurrea. Ta eguna argitu zai eon, atxurrian jardun, ta zortzirak laurden gutxiko kanpaiak jotzen zunen, korrika itxea. Eta ni karruan tratua jarri pronto-pronto eoten zan, ta jarri karruan, remolkian, ta plaza. Ta hau esnia partitzea.
- Eskuz, karrua eskuz eamate zenun?
- Bai, remolkian. Remolkia gendunian ondo giñan, lehen buruan.
- Buruan, e?
- Buruan, buruan hasi nitzan. Ta geo remolkian. Ta geo batzutan zalduyakin ta karro haundiyakin 'e bai, gauza asko zanian. Geo bi puesto eukitzen

giñun, ta... Kukulu karnizeruak dakan aurre hartan, urte pillá.
- Gogoatzen al dezu garai hartako preziyoikan? Ze preziyo zeukan jeneruak?
- Ze [...], deskuidatzen bazea hiru per-txiki tomatia kiluak. Eztakit, e! Baiña urteko gauza merke zan. [...] Sei pezeta hartzeko otarka handiya eamanda? Ta hori zan ta, diru asko zala esan zian aítak, eta bueno.

22. Umetako burutazio bat

- **Erref:** ZAR-018/024
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:59:11. **Bukatu:** 01:00:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Diruaren inguruko pasadizo bat kontatzen du.

23. Azokako giroa

- **Erref:** ZAR-018/025
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 01:00:12. **Bukatu:** 01:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Azokako giroa. Oso ondo konpontzen ziren. Hilero udaletxeari ordaintzen zioten postua, baina ez zen diru asko. Postuaren inguruko kontuak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Ta, azokan zuen artean ta ze mouzko girua, edo ze... konpetentziya izango zan, ba, zuen artean. Sestrak izango zian, sestraik ez?
- Ez, gu giñan kuadrilla esaten zun, este...., Urbíeta, zea, Meltxorrek: "hor eon ta okaziyoik ez dakazue, bata bestiai laundu iten diyoze. Ta zuen atze hortan beti baiñe zeoze", esaten zun. Ta ez giñan... oso ondo moldatzen giñan. Alkarren saldu 're bai, ta alkarren lagunak aldamenian jarri ta danea, e! Oso zea ona euki gendun guk, giro ona euki gendun beti, giro ona euki gendun, bai.
- Ta ayuntamientuakin ta ondo konpontzen ziñaten?
- Bai, harek hillian konbratzen zigun, ta...
- Zenbat kobratzen zun hillean?
- Aurrena gutxi zan, "no sé cuántas pesetas eran". Bestela egunero paatu behar zan. Ta arrautza aparte paatzen zan.
- Zenbat pagatzen zan egunero?
- Ez dakit, hirun bat pezeta o, zeoze hola zan, baiño zea gutxi zan, hillekua hutsa zan, "luego subieron a ciento cincuenta", baiño oso gutxi izaten zan, "no era mucho el puesto".
- Ta arrautza aparte zeatikan?
- Ez dakit zergatik zan. Akordatzen zait arrautza aparte zala, ta hiru per-

txiki dozenako kobratzen zun arrautza. Ta andre bat bazan, baatza zekaen, ta ollateia. Ta andre gizonak bakarrik zian, ez zuen familiik. Ta arrautzak eamate zitun plaza. Ta behiñ 'e ez zan eoten bea saltzen. Jarriko zixkian nei, jarriko zixkion beste batei, ta jarriko zixkion beste batei geo. Ta ibiltzen zan Meltxorren ihesika. Ta Meltxor, "de tonto no tenia ni un pelo, e, Meltxor", egiya esan bihar da. Ez zun harek tontoik. Pasako zitzaizkiyon, baiño hua akordatu gabe ez. Ikusi du nola dabillen eun batian, ta, "ta arrautza hoiek?", eta, "paatu in bihar al dizkizut? Ez dia neriak", eta. "Zeiñenak dia, ba?", harek bazakiyan zeñenak... "Zeiñenak dian? Hau deskuiduan [...]. Laugarren aldiya, laugarrena bada hau arrautzak honea aldatu ditula", nik esan niyon, ta hasten da parrez. "[...]", ta, "egiya!", urteko zea [...] urtiak eta, esan niyon, zea, este, "bazekiñat zeñenak dian, baiño gaur paatu gabe ez den ba libratuko". Egunero iten zian, baiño... "aquel no tenía de tonto, nada".

- Enpliatua izango zan, ayuntamientoko enpliatua.

- Ayuntamientoko danak kobratzen zituna. Pero, ezer behar bazenun, puestua behar gendunian o zeatu, harek askotan moldatzen zun, ta. Harek esan zian nei, aurreneko puestuakin izan zan okasiyo bat, batek ayuntamientotik eskatu, ta in, ta bestiak aurrea pasako zala uste kobradoriakin, ta pasa ez. Ta izan zuen okasiyo bat, esan zian "hola zertan ibili zeate? Sartu zazu, ba, ayuntamientuan solizitua, ta iña", esan zian. "Nik biarrena hartuko nuke, ba, nere onduan badao libre, ta", esan niyon, ta, "bueno, seituan ingo diñat. Aman izenian dakazue lehengua", ta "bai", ta "uaingua hirian izenen jarriko det", ta "txoakeia", esan niyon, "gue itxian patrika batetik atea dirua, bestetik atea, berdin da". "Ez, ez", jarri zian. Sartu nun solizitua ta, geo perioikuan letu nun "que cómo me concedían el piso". Ta geo, bi piso euki nitun. Ta geo, jende asko samar etortzen zan denboa eon zan, ta kentzen hasi zian pisuak bi ta hiru zituenai. Ta eaman giñuen eun batian, esan geniyon ta, "batian, metro batian nola sartuko ditut gauza danak, ezin ditut sartu". Eta ayuntamientuan esan zien, "zu eunero-eunero etortzen zea?", ta "bai", "eunero-eunero etortzen dianei, bi dazkanai, laga ingo diou". Ta geo, bikin eon nitzan, haik eta, "hasta los sesenta y cinco fui a la plaza todo todo todos los días", eunik galdu gabe.

24. Azokako sal-erosketa.

- **Erref:** ZAR-018/026
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:04:06. **Bukatu:** 01:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Regateoa. Gazteek ez zekiten regateatzen. Bikote batekin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Gerora karteletan prezio fijoak jarri behar izan zituzten eta inspektorea etortzen zen.

Transkripzioa

- Regateoa ta, ze mouzkua?

- "¡Eso, eso era hinchante! ¡Eso era la juerga!". Regateatu gabe ez zuen eosi nahi izaten. Ta banakan famili bat, Eibartik etorri zian honea bizitzea, matrimoniyo gazte bat. Ta gaztiak ez zuen regateatzen, ez zekiyeen regateatzen. Ta zaharrak bai. Ta eun batian etorri dek gizonakin bat, emakume haundi bat zan, Rosario zun izena, ta illarra garesti zeon orduan,

hamar duro baliyo zun kilua, oso garesti zan. Ta, "ponme guisantes", ta "querrás pelaos, pero no tengo pelaos", esan niyon, hola. Batzuek aletuta nahi izaten zuen, ba. "Mientras estáis, ¿a dónde vas?", "a la carnicería", "bueno, mientras haces lo de ahí ya me ayudará alguien y ya te pelaré un kilo". Laundu zien, lágunai esan niyen aldamenen, bueno, "ayuda al caserío". Partitu deu, ta aletu deu kilo hori, ta jarri diyotu bolsan, plastikozko poltsan ta, etorri zian andre-gizonak. Ta hartan etorri zan beste bat, iller billa. "¿A cómo tienes el guisante?", ta, ez dakit zenbat esan niyon, "cincuenta y tantos era al menos". Ta esan zian, "¿quiere cincuenta y cinco?", ta, "toma", ta eman diyotu cincuenta y cinco illar hori, ta beste matrimoniyo hua beira. Nik uste nun beira zeudela, baiño kasoik ez. "Cóbrame, Manoli!", "cincuenta pesetas me tienes que dar". "¿Has visto eso?" andriak gizonai, "¿has visto esto?". "Es que esa no sabe esto, llevar sin eso, tiene que regatear y ha ido feliz, porque le he bajao, y yo he ganao cinco pesetas". Regateatu in bihar zan. Bazian pertsonak erremeio gabe, "si no le rebajabas uno, algo, no te llevaban". "Otra...", gaztiak ez, gaztiak hasi zan ya... Geo jarri zizkiguen zea batzuek, pizarra batzuek eta han gauza dana apuntauta. Tal a tanto, a tanto, jarrita preziaua. Inspektoria etortzen zan. "Era un demonio de persona, era, e, pero...", pixu danak airian ibiltzen zizkigun ta bat. Eta eun batian esan zian, "no tiene letrero", "y", "sí, tiene aquí todo", "y", "falta tal cosa", esan zian beak, "en seguida pondré", esan niyon. "A, pero eso no sirve para nada". "¿Que no sirve para nada?", "no, no, no, señor. No sirve para nada. Mire, va a estar usted un ratito al lao mío, pa que vea cómo funciona esto". Jarri zan dendai kanpotik, eta [...] regateatzen. "Aquí funciona así, y no funciona lo otro". Zaharrak ez zuen...

- Baiña, umetatik ezautu dezu hori, beti, regateua beti izan da.

- Hori beti.

- Zure amak ere bai ezautuko zun.

- Danak. Nik regateuakin plaza ikasi nun. Geo ahaztu zitzaigun, ya jarri giñan hoinbestian, ta... Geo dia gauza batzuek "que bajan poco" eun batetik bestea, "van bien, organizaos". Baiño [...], "hacía, subía hasta el cielo y bajaba hasta debajo de la tierra", lorian hola zan.

25. Gaztetan nola dibertitzen ziren.

- **Erref:** ZAR-018/030
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:13:25. **Bukatu:** 01:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Nola dibertitzen ziren. Neskek dantzan egiten zuten kioskoaren inguruan eta mutilek tabernatik begiratu. Umetan zinera joaten ziren. Neskak eta mutilak aparte jartzen zituzten. Igandetan 6 pieza jotzen zituzten plazan. Udan astean 3 egunetan egoten zen mu

26. Erromerietako kontuak

- **Erref:** ZAR-018/031
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:15:50. **Bukatu:** 01:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen. Aizarnazabalera erromeriara joan zeneko pasadizoa kontatzen du. Sasoiz joaten ziren beti etxera.

27. Elurte eta uholdeen inguruko kontuak.

- **Erref:** ZAR-018/034
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:19:22. **Bukatu:** 01:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Eguraldia. Elurteak. Berak ez du ezagutu elurte handirik, baina orain baino gehiago bai. Uholde batzuetan txalupan ibili omen ziren kalean, Alfa egin eta handik gutxira. Geroago ere 1949-50 inguruan eurite handiak izan ziren. (zarata handia entzuten da)

28. Baserritarren ermandadeak eta auzolana

- **Erref:** ZAR-018/035
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserritarrek ganduaren ermandade bat izaten zuten. Hilean behin elkartu eta kuota bat ordaintzen zuten. Zerbait pasatzen zenean elkarri laguntzen zioten. Baserri bat erretzen zenean etxez etxe ibiltzen ziren eskean. Auzolana.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com